


"Hizkuntzak egiten gaitu" lelopean Regueibertso ekimena

16. orrialdea

Arratiako Jantzari Eguna Zeanurin

Arratia eta Usansoloko taldeak batuko dira hilaren 29an Arrikibar Dantza Elkartek antolatuta Nazinoarteko Jantza Egunean. Arratiako kultura sustatu eta herrien artean batu, ezetu eta bateratutako proiektuak aurrera eroan gura dabez antolatzaileak. Regueibertso ekimenak eta Makeako musikari, kantari eta jantzariak be lekua izango dabe egun honetan. 17. orrialdea



Motor taldeak antolatuta Euskal Herriari itzulia motor gainean

14. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

272

2017ko apirilaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Gaubean izan arren, jentetzea Korrikan

Aprilaren 7an pasau zan Korrika gure eskualdetik. Gauerdian sartu zan Bediatik eta Ubidetik urten zan goizaldeko 04:30ak aldera.

Zeberion Korrika sartu ez arren zeberioztarrak be hartu eben parte Hego Urriben hainbat kilometro eguerdi aldean eginda. Zeberio Udalak, esaterako, Arakaldon eukan kilometroa.

Dimatik be ez zan Korrika pasau baina dimoztarrak kolorez bete eben Barazar, Korrikaren lekukoa eroatea jai bihurtuz. Hurrengo Korrika Dimatik pasauko dala agindu eutsen korrikalariak AEK-ko Klara Astondoak.

Parte hartze ikaragarria egon zan. Ubiden, ume txikerrenak be eroan eben lekukoa, horretarako egindako karro berezi baten, lekukoa eroatearen garrantziaren jaube izango balira lez.

Handia, indartsua eta alaia izan zan. Eta alkarte, alderdi, erakunde eta norbanako askok lagundu eutsien 20. Korrikari. Gau haretan bizi izandakoaren laburpentxo bat dakarre erdialdeko orrietan bildutako argazkiak.

8-13. orrialdeak



Dimako Bertso Eskola.

ARRATIA

2012-2016 arteko genero indarkeriagaitiko Arratiako datuak

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) genero indarkeria dala eta, 2012-2016 bosturtekoaren datuak emon ditu jakitera. Bost urte honetan, AUMk atendidutako kasuak gora egin dabe kopuruan eta zerbitzu espezialduen erabileran. Sarbidea be zabaldu egin da. Bost urte honetan, batz bestea, AUMk artatutako andren %60k ipini dabe salaketea.

Indarkeria sexista bizi edo bizi dauanik ezetu ezker laguntza jasoteko AUMko telefonora deitu daiteke 94 631 17 17; edo 24 orduko telefono debaldeko eta konfidentzialera 900 840 111; edo 112 Larrialdietako zerbitzura.

5. orrialdea

DIMA/IGORRE

1937ko Igorre eta Dimako bonbardaketetan hildakoai aitortza

Indar frankistak Igorre eta Dima bonbardeautako 80. urteurrenaren bezperetan, Igorre eta Dimako Udalak, bertan hildakoai egia, justizia eta erreparazioa egiteko helburuagaz, aitortza ekitaldi bana egin eben aprilaren 7an eta 8an, hurrengo hurrengo. Hiru hildako egon ziran bonbardaketa bakotxean. Igorren Ilintia eta Diman Txumuluxueta alkar-ta dabiz memoria berreskuratzeko beharrea. 7. orrialdea

M. Jose zure arropa GALANTA 94 631 90 08

Agirre Lehendakaria 23 48140 Igorre galanta@hotmail.es

www.facebook.com/galanta.lenceria

IGORRE

Ehunka gaztek hartu dabe parte Gazte Akelarrea jardunaldietan

"Sugarren dantzan independentziara" lelopean, Euskal Herri osoko ehunka gazte batu ziran Igorren Ernaik eta Aitzinak antolatutako Gazte Akelarrean parte hartzeako. Hurrengo egun bietan ekintza, berbaldi eta tailer ugari egon ziran Igorreko hainbat gunetan. Kontzertuak be oso arrakastatsuak izan ziran. Ekitaldi politiko eta manifestazio batez amaitu ziran jardunaldiok. Ernai eta Aitzinako ordezkariak independentziaren aldeko burrukan jarraituteko deia egin eben. 7. orrialdea



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Haxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com


BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Bolandera



Airera jaurti eta eztanda arina egiten dauan lehegailu txikia da bolanderea (bolandérea, ahoskatuta; bolánderak, pluralez). Batuan, suziri edo txapligu da. Gaztelania zaharrean *volandera* eta *echafuegos* esaten da. Jaietan eta antzeko ospakizun berezietan erabilten dira bolanderak; batzuk, tiro batekoak eta beste bolandera batzuk, hiru-lau tirokoak izaten dira. Arratian, gainera, badogu bolanderak eta fabriketan dituan familia billaroztarra. Gure zaharrentzat lantegi horrek, oindino, "bolandera" izena dauka.

ERETXIA

Nire gorputza ez dago alokairuan



IANIRE DE LA CALVA
FeministAlde!ko kidea

Ama nazanetik, esparru difereenteetako andrak itaundu deuste, feminista nazan aldetik, zer pentsetan dodan amatasun subrogaduaren gainean.

Gizarte heteropatriarkal baten bizi gara eta andron gorputzak inbadidutako eremuak izaten jarraituten dabe. Ez dago eztabaida etiko edo politiko posible-rik "haurdunaldi subrogadua" deitutakoaren gainean gizarte testuingurua eta desbardintasuna-gaz estu lotutako norbanakoaren askatasuna alde batera itxi ezker.

Haurdunaldi subrogadua, andren kontrolean, kasu honetan kontrol sexualean, oinarritutako praktiken artean dago. Hau ez da barria eta feministok badakigu gure gorputza beti izan dana gerrarako arma, konkista eremu eta beste gizajentearen erdiarentzat gozamen eta erabilera espazioa.

"Alokairuko sabelak" berbak eurak atzera botaten dabe, baina asmo-deklarazino argia da: andra baten sabela alokatu egiten da haurdun geratu daiten. Alokatu egiten da eta, beraz, alokairua ordaindu.

Sarritan, alde dagozanak haurdunaldi subrogadua, desira eta zorionaren gaineko kontakizun personaletik ("emozinoen mistikea") defendiduten dabe, eta honek eztabaidearen gaia alden- du egiten dau. Gainera, haurdun dagoan ama, emoile infinito moduan agertzen da, eta bere bizitzaren zentzua besteai laguntzea izango balitz moduan ("besteentzako izakia"). Planteamentu honek iraunarazoten dau feministok gogaituten dogun andra onaren estigma/estereotipoa.

Eztabaideari ekiteko testuingurua oinarritzkoa da. Zezeilaren 18an El Pais egunkarian publikatutako datuen arabera, kasuen %98, kontratupeko merkataritza kontua da. Kasu batzuetan, haurdunaldia biziko daben amak, sexu hartu-emonik ez dabela eukiko

ezartzen dabezan klausulak, edo umea maitatuko ez daben bermea sinatzen dabe. Eretxiz aldatzeko eskubidea ukatzen jakie, euren askatasuna eta aukeratzeko gaitasuna ezeztatuz. Izan gaitzean zintzoak: zenbat andra aberatsek haziko dabe sabelean andra pobreentzako umerik?

Horri gehitu behar jako haurdun geratzen danak, haurdun-

dian gorputza arriskuan ipinten dauala (baita hiltzeko arriskuan be) eta, jakina, interes ekonomikoen arriskueta be jarten dauala. Izan be, batez be Pakistan eta Bangladesh-eko landa eremuetan, andra gazte eta ugalkorren bila ibiltzen diran agentziak dagoz. Beraz, baldintza desbardinak oinarri dituan markataritza transakzino batez gabiz berbetan.

Ez dot zalantzan ipinten haurdunaldi subrogaduaren bitartez, aitasun eta amatasun ametsak gauzatu egin diranik, baina hau ezin da egin andren gorputzen kontura. Beste familia eredu batzuk be badagoz, amets horreek beteteko beste modu batzuk, adopzinoa edo familia harrerea, esate baterako. Aitasun edo amatasun desira hain handia edo nongurakoa bada be, geneak iraunarazotea ezin da gauzatu androk ontzi moduan erabilia.

Norbanakoaren askatasuna mantentzen? Jakina, baina gure gorputzak salgai ipini barik -ez erabat, ezta modu partzialean be- gure gorputzak ez dagozalako salgai. Andra batek askatasun osoz aukeratzeko baleu beste bantentzako umea haztea sabelean, derrigorrezkoa izan beharko litzateke bera babesten dauan marko baten egitea, ordainsaririk barik, modu altruistan (askoz gitxiago izango litzateke) eta beti, hasikeratik amaierara arte, prozesu osoan zehar eretxiz aldatzeko edo abortetako eskubide osoagaz.

Espainiako estaduan, amatasun subrogadua galarazota dago. Argi itxi behar da salerosi daitekenaren eta ezin danaren arteko muga zein dan; eta hau, gorputza bera da. Eta aukeratzeko askatasunak ezin dau andren eskubideak urratu edo bizitzari prezioa ipini. Gizakiak gara, ez ordainduten dauanaren zerbitzura dagozan sabel ugalkorak.

* Erredakzinoan itzulia

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Erredakzioa

Uztarri

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Maroto y su moto

Apirilaren 8an ETaren desarmaea etorri jakun. Interlokutorerik ezean, gizarte zibilak hartu behar izan eban prozesuan lagunduteko ebatzia. Frantziako Gobernuak oztoporik ez ipintea erabagi eban; Espainiako Gobernuak, betiko moduan, ez eban ekarpen positiborik egin; ez eukien zer harrapatu, antza; eta zer harrapatu egon ez dan lekura ez da sekula santan joan.

Horren ostetik, alde guztietatik etorri ziran adierazpenak. Gehien-gehienak guztiz prebisibleak (egia esan, agoa zabaldu orduko badakigu gaur egungo politikoak zer esan behar daberen; daukien formazioak be ez deutse errekurso handirik emoten), baina batek euki eban, bai, niri barrenak astintzeko gaitasuna (aitortu behar dot, horren inguruko guztiak daukiela gaitasun hori nirekiko); Maroto izan zan. Hara zer esan eban: "...un intento de blan-

quearse y de reescribir la historia (...) nosotros daremos la versión real y veraz...". Jakina, horri gaineratu eutsan espainol guztiai parkamena eskatutea.

Hori entzuteagaz batera, ziztada bat igarri neban tripetan, guzurraren ziztadea; eta esaldi bat etorri jatan agora "*iNo hay huevos!*". Maroto ez daukak adorerik! Ez daukak adorerik hire Espainiaren historia *real* eta *veraz* hori kontetako; hi heu be ikaratu egingo hintzateke-eta hire Espainiaren benetako historia kontauko baheu. Oso errazoi simple bategaitik, hire Espainiaren historia izuaren historia dalako, sarraskiarena, Europa erdiko eta Amerika erdiko andrazko guztiak bortxatu zituenena; hango etniak, hizkuntzak eta kulturak suntsitu zituenena; gaur egun hiena gogotien antzera, adurra dariola, danon diruak ostuten dabilzanena.

Entzun ondo, Maroto, hik, mutiko formaltoaren itxura korrekto horren ostean ezkututzen hazen horrek, ez daukak adorerik egia esateko! Joan hadi Madriler a y *véndeles tu moto!* Guk ondo dakigu-eta jakin, errelato *real* eta *veraz* hori zein dan.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Arrunkeria

Hotz egiten eban urtaileko lehenengo goizetan. Upialeko hotza. Banketxeak bahitutako pisuen jaubeak, luzaroko langabetuak eta gerretako errefujiaduak gorriak eta bi pasetan ebezan kalean hotzak tragauta ez hilteko. Ideak be izoztu bide jakezan literatura talde batera joiazan bi laguneri.

- Hau hotza! Zein izango da gure gaurko jarduna?
- Ez dakit ba, ondino Gabonetan gagozan lez, "Gabonetako ipuin" bat proposatu geinke taldean.
- Hori ez da lar arrunta?
- Ez dau zertan. Aikor hara!

Lagunetako batek seinaletan eban lekuan erropa zikin moltso bat ikusten zan, kalekanto baten, satsa edukiontzien artean. Azpian, hotzak hilik, Siriatic edo batek daki nondik etorritako mutil desdixado bat.

- Badogu gure ipuineko protagonistea! Kaleko mutiko bat hotzak tragaua. Itzel!

Lagunak hurreratu jagozan mutilari, eta honek,

begi izutuakaz, zor eta lor begiratzen eutsen.

- Bai, baina ez da nahikoa. Gabonetako ipuin guztietan Gabonetako zugatzak egon behar dau.

- Egia. Begiratu daigun ba, Gabonak ez dira ondino amaitu. Non edo non egon behar da zugatzen bat. Han! Han goian, pisu horretan badago bat, argiez apaindua gainera.

- Ondo! Beraz, imajinatu geinke zugatz horren ondian tximinia dagoala.

- Bai, ederra! Eta kalean hotzak tragauta dagoan mutila etxe epel horretara eroaten dabela.

- Bai! Eta Gabon afaria egiten dabela alkarregaz! Eta biharamunean, ohe goxoan Bizarzuriren bisitea jasoten dauala! Badogu ipuina.

- Baina, nork sinistuko deusku badagoala mutiko bat kale gorrian hotzak tragauta?

- Egia da. Arrunkeria da. Goazen hemetik, itxi daigun bakean mutila!

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak beginu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Kolibrien tantakadak

Oihanean suak dana kiskaltzen dauanean, kolibri txikiak bere mokoan daroan uragaz sua amatatzen lagundu leike. Gure kolibririkoa laguntza emon ezezik hazia erne dabe eurengan eta eskola-kideen barruan.

Gu, Zeanuriko 1. eta 2. mailako ikasleak gara. Gelan, egunero, notiziak kontetan doguz. Siria eta inguruko herrialdeetako egoerearen notizia behin eta barriro errepikatzen zan. Honek kezkatzen ginduzan. Zer egin geinken pentsetan... tonbola bat antolatzea bururatu jakun. Tonbolan, jolasak, liburuak eta guk egindako eskulanak zozketatu genduzan, zezeilaren 24an. Egun horretarako, German, Miren eta Josune etorri ziran. Honek eskolaz eskola ibiltzen dira errefujiaduen egoerearen barri emoten. Lehenik Carlotaren ipuina kontau euskuen, horren ostean, Siriako argazkiak ikusi genduzan eta azkenik tonbola egin genduan eskola guztiarentzat. Batu genduan dirua, Hotel Plaza proiektura bidali genduan.

Proiektuak gure etxeetan be isla izan dau. Guraso batek irakatsi euskun moduan ez dago arazorik danon artean konpondu ezin danik, arazo gitxi dago, oster, bakarrik konpondu leitekenik.

Alkartasunean hezi daiguzan gure umeak.

Zeanuriko eskolako ikasleak



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gouzatzea
Luzetaketan instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bilgosiola Industrialdea E2 Pab. 48, 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Fax: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendizola, s/n 48300 LEIZOLA, Bilaka
Tel: 600 952 520 Fax: 600 952 522

belagorri

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakozentrat elkageak
estaltziera

Zamako. 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 67 56
L. Agire. 9 - 48140 Igoite
94 631 14 39

ARRATIA

Genero indarkeriagaitik AUMk artatutako andren kopuruak gora egin dau 2012 urtetik 2016ra

Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Berdintasun Arloak 2012-2016 urteen artean, genero biolentzia sufridu eben 85 andra atendidu ebazan. Atendidutako andren kopuruak goranzko joerea dauka: 2012an 14 izan ziran eta 2016an 24.

Erredakzioa

Urteetan egindako sensibilizazio lanari esker, zerbitzua behar daben andrakana heltzean dala izan daitekela gora egitearen errazoa uste dau Xabier Pastor Teknikariak. Zerbitzurako sarbidea zabaldu egin da: 2012tik 2014ra, Mankomunitadeak, zuzenean Gizarte Zerbitzura jotzen ebenak eta Ertzaintzak bideratutakoak atendiduten ebazan;

2015ean, Osakidetza be hasi zan pazienteak bideratzen, eta 2016an Zutituk be izan zan AUMko zerbitzurako sarbide. 2015ean BFAk eta AUMk hitzarmena sinatu eta, 2016ko urtailaren 7an hasi zan zerbitzu hau Arratian. Bizkaiko Foru Aldundiak, Zutituren bitartez, genero indarkeria jasaten daben andra eta honeen seme-alabai laguntza psikologikoa eskeintzen deutse. Laguntza psikologikoa eta juri-

dikoaren erabilereak be gora egin dau AUMk atendidutako andren artean. Bost urteotan AUMen, genero indarkeriagaitik atendidutako 85 andren batz besteko adina 37,9 urtekoa da. Atendidutako andra gehienak (%79,7) seme alabak zituen. Eta hemen, bilakaera bat gertatu da. Izan be, hasikera baten seme-alabak eukien porzentajea ez zan hain handia, baina 2015ean, danak ziran ama. Beraz, badirudi atzen urteotan, genero indarkeria sufriduten daben amak gehiago animetan dirala laguntza eskatuten.

Salaketa porzentajerik altuena 2014an

Salaketen kasuan, maximoa 2014an izan zan (%73,3); gero 14 puntu behera egin eta egonkortu egin da.

Salaketea ipintea ala ez, kasuan kasuan azertu beharreko kontua izaten da. Genero indarkeriaren kontrako legea aurrerapausu handia izan zan eta eskubideak praktikau egin behar dira manteniduteko, baina egia da, salaketeagaz batera andra askorentzat beste infernu bat hasten dala eta

askok ebazten dabe salaketarik ez ipintea. "Salaketa jarri edo ez jartzearen errazoi nagusia genero indarkeria motaren arabera izan ahal da. Andren bizia arriskuan dagoanean salaketea ezinbesteko baliabide edo tresna bat da. Beraz, salaketak urteko kasu bakotxaren zehaztepenakaz lotuta egon ahal dira" dinoe Mankomunitadetik.

Arratian, Mankomunitadeak atendidutako %60k ipini dabe salaketea. 2014an urte bi lehenago baino 26 puntu gehiago izan zan, %47tik %73ra pasauz. Hurrengo urtean ostera, hamalau puntu behera egin eban eta %58aren inguruan geratu zan igaz be.

Sarbidea eta zerbitzu espezialduen erabilerea


Sarbidea zabaldu egin bada be, Mankomunitadeak atendidutako andra gehienak, zuzenean Gizarte Zerbitzura jo ebenak izan ziran. 2016an, 2014ko kopurua biderkatu zan, 7tik 14ra pasauz. Ertzaintza, Osakidetza eta Zutituk be bideratu ebezan Gizarte Zerbitzuetara.

Zerbitzu espezializaduai jagokienean (laguntza psikologikoa edota juridikoa) lau andretatik 3k erabili ebezan. Atzenengo hiru urteetan %80 inguruk.


Laguntza eskatzeko

Indarkeria bizi edo bizi dauanik ezetu ezker, AUMko Gizarte Zerbitzua edo Berdintasun Zerbitzuagaz kontaktuan jarteko 94 631 17 17 telefonora deitu daiteke astelehenetik barikura. Edozein egunetan eta edozein ordutan, 900 840 111 telefono debaldeko eta konfidentzialera deitu daiteke, baita 112 Larrialdietako telefonora be.

Urtea	Artatutako andrak	Batz besteko adina	Seme-alabak	Salaketea	Zerbitzu espezializaduai erabili dituz
2012	14	39,6	%67	%47	%66
2013	14	35	%64	%62	%57
2014	15	39	%80	%73,3	%80
2015	17	38	%100	%58,9	%83
2016	24	37,9	%87,5	%58,3	%79,7



Artatutako andrak.



Salaketak.

IGORRE

Bono-denda kanpainearen balorazioa egin dau AMEK

Erredakzioa

Martiaren 31n amaitu zan, udabarriko Bono-dendak kanpaina. Arratiako Merkatarien Elkartekoak (AME) kanpaina arrakastatsua izan dala dinoe eta herriko komertzioa sustatzeko modu egokia dala uste dabe.

Bonoakaz, kosumitzaileak %20 ko deskontua izan dabe Igorreko 28 saltokitan. Bezeroak oso harrera ona egin deutsee bonoai, La Caixak kudeatu dau eta Igorreko Udalak dirua ipini dau kanpaina aurrera erroteko.

BEDIA

Udalak herriko jubiladuen diagnostikoa egingo dau

Erredakzioa

Ekintza Plan bat egiteko asmoz, Bediako Udalak 60 urtetik gorako informazioa batzeari ekingo deutso, nagusien egoeraren diagnostiko bat egin ahal izateko.

Gaspe eta umeen gaineko informazioa badaukiela eta urtean zehar eurentzako ekintza piloa egiten dabela, baina hori holan ez dala nagusien kasuan dino Aitor Sorriketa Bediako alkateak. Horregaitik, eta informazioa batzeako udal langileak 60 urtetik gorako herritarrez batzartuko dira eta etxetik etxe joango dira inkesta bat bete dagien. Erantzunakaz, nagusien egoera eta beharrezan "argazkia" egingo dau Udalak, aurrerago, premia horreei erantzun deusan Ekintza Plana egin ahal izateko.

BEDIA

Herritarren kohesinoa helburu daukien aurrekontuak onartu dabez

Erredakzioa

Apirilaren 11n onartu ziran Bedian 2017rako Udal kontuak, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentziagaz. Kontu honeen arabera, 1.307.000 euro kudeatuko ditu Udalak. Inbersi-

noetan, Jauregi auzuneko urbanizazioak eta Murtatzako espaloiak eroango dabez diru partidari inportanteenak, baina kulturarako be diru gehiago egongo da.

Urrun geratu dirala sasoi bateko 1.700.000 edo 1.800.000 euroko aurrekontuak dino Aitor Sorriketa

Bediako alkateak, baina urteetan zehar inbersinoak murriztu arren, "txukun" dagoala herria eta kulturako diru partidea mantenidu egin dabela beti. Inbersinoai jagokienean obra bi egingo ditue aurten: Murtatzan espaloia eta Jauregi auzuneko urbanizazio lanak. Murtatzan, kamino ondoan, autobus gurelekutik beherantza eskoi aldean ez dago espaloirik. Lanak, fase bi eukiko dabez: aurten espaloia egin eta datorren urtean Usansoloko errotondeagaz batuko da.

Jauregi auzuneko urbanizazio barrizte lanak jagokienean barriz, espaloiak, asfaltoa eta abar zahar-

barrizteko lanak ekingo deutseela dino alkateak, eta auzuneko oinezkoak lehentasuna euki dagien lanak be aurreikusten dirala. Hori dala-eta, kotxeak aparketako aparkaleku bi sortu beharko dira. Jauregi auzuneko lanak be fase bitan egingo dira, "500.000 euro inguruko aurrekontua daukie. Horregaitik aurten egingo dogu zatitxo bat eta datorren urtean beste bat" dino alkateak.

Kulturarako be igaz baino diru gehiago egongo da. "Kultura, euskera, jaietan eta beste ekintza batzuetan, bai gastetan dogu dirua, uste dogulako herriko jentea

batuteko modu bat dala. Herritarren kohesinoa bilatzen dogu".

Irekitzeko lizentziak gora

Bizkaiko Foru Aldundiaren Udalkutxatik diru gitxiago aurreikusten da, baina ikastaro, lizentzia eta Ondasun Higiezin Zergen (OHZ) bitartez kompensauko da. "Atzenengo urteotan, hainbat enpresa eta autonomo etorri dira herrira eta irekitzeko lizentziak dirala-eta, diru sarreretan igoera egongo dala aurreikusten dogu". Gainera, OHZ barrizteak alta emon barik egozan etxe batzuei alta emotea ekarri dau.

AREATZA

Sei eta hamabi urte bitarteko gurasoentzako ikastaroa Areatzan

zino Komunitario arloak antolatutako, "Guraso izatea, zama, uko edo gozatzea?" zikloko hirugarren ikastaroa hasiko da apirilaren 27an Areatzan. Oraingo hau 6-12 urte bitarteko umeen gurasoentzako izango da, gazteleraz.

Ikastaroak bost saio izango ditu, apirilaren 27an eta maiatzaren 4, 11, 18 eta 25ean, hain zuzen be. Bertan, haztea zer dan, nerabe izatea zer dan, zein dan gurasoen papela bizitzako sasoi honetan, autoritatea, mugak eta arauak, parekoak hartu-emonak eta ikasketak eta ebatziak zelan hartu landuko dira.

Izena emoteko prebentzioa. arratia@bizkaia.org helbidera idatzi egin behar da edo Mankomunitadara deitu.

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Adikizinoen Preben-

AREATZA

Menopausiaren inguruko mitoak deuseztatzeko tailerra**Erredakzioa**

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen barruan, Areatzako Udalak "Menopausia, eta orain zer?" izeneko tailerra antolatu dau, Desirak alkartearen eskutik. Saio bi izango ditu, apirilaren 26an bata eta maiatzaren 3an bestea, 18:00etatik 20:00etara udaletxean.

Tailerrak menopausiaren inguruan dagozan mito, tabu eta bildurren inguruan eztabaidatzea

dauka helburu. Izan be, andra askok aldaketa handiak jasaten dabez arlo psikologikoan, fisikoan eta emozionalean eta sasoi hori inflexino puntu bat izaten da askorentzat. Gainera, oindino askok sexualitatea ugalketeagaz lotzean dabe eta menopausian, sexualitatea bigarren mailara pasetan dala sentiduten dabe batzuek. Andren bizitzaren sasoi honen inguruko hausnarketea bultzatu gura dau tailerrak.

LEMOA

Iñaki Bilbao eta Tomas Linazaren aldeko mendi martxea**Erredakzioa**

Lemoako Bagabiz Badatoz ekimenak, euskal preso eta iheslarien aldeko "Elkartasun mendi martxa" antolatu dau apirilaren 23rako, domekea. "Iñaki eta Tomas Lemoan gura doguz" lemapean, Iñaki Bilbao preso eta Tomas Linaza Cabo Verden deportaua, Lemoan gura dabezala aldarrikatuko dabe. Mendi martxea egin ostean, kopautxoak eta ekitaldia egongo dira.

Mendi martxea 09:00etan



abiatuko da Atxetatik. Atxeta, San Inazio, Lemoatx, Landalde, Bediako kanposantua, Barranko, Durandio eta Atxeta izango da partaideak egongo daben ibilbidea.

ZEANURI

Miren Artetxek sortutako Andramari Ikastoleak 50. urteurrena ospatu dau

Zornotzako Andramari Ikastoleak 50 urte bete ditu eta 586 ikasle ditu. Urteurrena ospatuteko hainbat ekitaldi egin dabez aste osoan zehar.

Erredakzioa


Ikastolearen lehenengo pausak, andereño Miren, Miren Artetxe Garai zenuriztarraren etxean izan ziran.

Miren Artetxek Magisteritza ikasi eban Valladoliden. Hasikera baten eskola batetik bestera ibili zan, Zeanuri eta Barakaldoko eskoletan, esate baterako. Zeanurin, Ipiñaburuko auzo-eskolan be egin eban behar. "Uriartetik Undurragara bizikletaz joaten zan eta gero handik gora oinez" azaldu deutso BEGITURI Aitziber Milikua bere lobak.

Ikastolearen sorrera

Gizonaren beharra zala-eta, Uri-

bitartetik Zornotzara joan ziran biziten andra-gizonak. Gizonaren laneko ezagun batzuk, Magisteri-



Miren Artetxe.

tza ikasketak eukazala eta euskalduna zala jakin ebenean, euren umeai eskolak emoteko eskatu eutsien. Eta holan hasi zan bere etxean, "ume gutxi batzukaz" Artetxek berak, 50. urteurreneko bideoan gogora ekarri dauan moduan.

Handik lokal batera joan ziran eta gero, Miren Artetxe Karmelo ikastetxera joan zan jubilau arte.

Gaur egun ikastolea guraso kooperatibea da, 586 ikasle ditu eta euskal munduan ezagunak diran hainbat lagunek ikasi dabe han: Mikel Urdangarin abeslariak, Eneko Atxa sukaldariak, Miren Larrea aktoreak eta Beñat Ugarte-txea bertsolariak, berbarako.



Zeanurin bildutako zinegotziak.

ZEANURI

Zeanuriko zinegotziak bat egin eben maiatzaren 7ko herri galdeketeagaz**Erredakzioa**

Apirilaren 8an, ekitaldi baten, Zeanurin, 1979tik hona izan diran 36 zinegotzi eta alkatek babesa emon eutsien, Gaure Eskuetan alkarteak maiatzaren 7rako deitutako herri galdeketeari.

Musikea eta txalapartearen ostean, zinegotziak bildu eta Maider Etxebarriak eta Jose Luis Artetxe zinegotzi izandakoak atxikimentua eta herritarri galdeketean parte har-

tzeako deialdia irakurri eben. "Dei egiten deutsegu heritar guztiai bertan parte hartzea, eretxia agertzea, herri bat garalako, erabakitzeo eskubidea dogulako eta herritarron sasoiak dalako" esan eben. Izan be, euren ustez, herri galdeketea, emoitzen gainetik, gizarte kohesiorako dagoan tresna egokiena da.

Maiatzaren 7an zeauriztarrak erantzungo daben itauna hauxe da. "Euskal Herri independente bateko herritarra izan gure dozu?".

AREATZA

Begirale batek Ospitalosteko instalazioak erabilten irakatsiko dau**Erredakzioa**

Areatza Lantzen udal aldiakariak jakitera emon dauanaren arabera, Ospitalosteko instalazioak aprobetxetako, Aldundiko begirale bat Areatzara joango da herritarri parke bio-osasungarrien instalazioak erabilten irakasteko. Maiatzean hasita zortzi saio eskeiniko dira, astean behin.

Gitxienez bost eta gehienez hogeit hamar pertsona osotuko dira. Ikastaroak debaldekoak dira eta parte hartu gura dabenak udaletxean emon behar dabe izena. Edozein edadetako jentek hartu leike parte.



DIMA/IGORRE

Gerran hildakoai aitortza ekitaldiak egin deutseez



Bakearen Lore Gara ekitaldian parte hartutakoak.

Indar frankistak Igorre eta Dima bonbardeutako 80. urteurrenaren bezperetan, Igorre eta Dimako Udalak aitortza ekitaldi bana egin eben apirilaren 7an eta 8an, hurrengo hurrengo; bertan hildakoai egia, justizia eta erreparazioa egiteko helburuagaz. Bonbardaketa bakoitzean hiru hildako egon ziran.

Erredakzioa

Igorren bonbardaketaren memoria jasoten dauan "totem" edo monolito bat ipini eben Beheko Plazan, eta alkateak inauguratu eban aitortza ekitaldian. Omenaldia egiteko han batutakoak, bonbardaketa bizi ebenen testigantza jasoten dauan bideo bat ikusi eben. Ondoren Beinat Anzola Igorreko alkateak hildakoai aitamena egin eutsen, eta minutu bateko isilunea egin eben, sirenak

eta kanpai hotsak entzuten ziran bitartean.

Orain urte batzuk Igorreko Udalak Memoriaren Bankua proiektuari ekin eutsan ahozko Historia jaso eta igorreztarri ezetutera emoteko helburuagaz. Ilintiarri beka bat emon deutso bonbardaketa ikertuteko. Ekitaldian, Itsaso Bengoetxea zinegotziak Igorreko Memoriaren Bankuaren proiektuaren barri emon eban.

Maiatzean zehar, Ilintiarri, egindako ikerketaren emaitzak erakutsiko

ditu Kultur Etxean egongo dan erakusketan.

Bakearen Lore Gara

Valentina Aginaga Ingunza, Esteban Bilbao Etxezarreta eta Pedro Esparta Zurinaga 1937ko apirilaren 6an, hil ziran, arrastiko bostetan, Dimako bonbardaketan. Orain dala urte bi hasi zan Txumuluxueta alkatea memoria historikoa berreskuratzen eta 80. urteurrenaitortza ekitaldia egiteko proposamena egin eutsan Udalarri, gerra denporako eta gerraosteko erreparazio guztia aitortza egiteko. Holan, Bakearen Lore Gara izeneko ekitaldi instituzionala egin eban Dimak apirilaren 8an.

Umeak emon eutsien hasikerea ekitaldiari Ibon Izak prestatutako koplak batzuk kantautu. Gero Nekane Intxaurtza Dimako alkateak hartu eban berbea, "gaurko ekintza herriaren aurrean erreparazio moral eta justizia egiteko dator" esan eban. Gerra denporan Dimako alkate zan Mariano Bilbaoren koplak kantatu eban Jose Antonio Aurrekoetxeak, herriko jantzariak koplak horreen koreografia egin bitartean. Hil edo kartzelan egondako 58 dimoztarren izen zerrenda irakurri zan eta sasoi haretako testigantzak jasoten dauzan bideoa be ikusi ahal izan eben bertarutakoak. Zerrenda zabalik dago eta jentek informazioa emotea eskertuko dabela dino alkateak.

Herriko jubiladuen koruak be parte hartu eban ekitaldian. Ekitaldi amaieran, erreparazioaren familiakoak larrosa zuri, eta umeak abestutako koplak eta gerraren inguruko marrazkiak eukazan "pergamutxo" bana jaso eben orogarrimoduan.

Ekitaldiko grabazioa, argazkiak eta gerra bizi izandakoen kontakizunen bideoa Udalaren webgunean ipiniko dabez ikusgai.

ZEANURI

Udal zerbitzuen irisgarritasuna hobetuko dau Zeanurik

Erredakzioa

Apirilaren 6an onartu ziran Zeanurik 2017ko Udal kontuak, EAJ-PNVko aldeko botoakaz. Guztira 2.098.826,28 euroko aurrekontua da, baina 618.000 euro inguruko diru soberakina dagoala dino alkateak eta diru hori be erabiliko dabela hainbat proiekturako. Jentearantzako irisgarriagoak izango diran bulego barriak zabaldu eta igogailua ipintea Kultur Etxean dira proiektu horreetako batzuk.


Zeanuriko udaletxeak irisgarritasun arazoak dauka. Izan be, bulegoetara heltzeako eskailera estu bat igon behar da. Hori dala eta, igaz udalak lokal bi erosi eban herriaren udaletxe bulegoak ipinteko. Konponketa lanak hasi dirala eta laster zabalduko dituela azaldu deutso BEGITURI Eusebio Larrazabal Zeanuriko alkateak. Aurrekontuetan, 156.836 euroko diru partidea dago bulego barrietarako.

Irisgarritasunagaz lotutako beste proiektua Kultur Etxean igogailua ipintea da. Horretarako 50.000 euro dagoz aurrekontuetan, gero erremamenteko dirua gehituko jakola dino alkateak.

Saneamentua dala eta, Ipiñabururik aktuaizino urgente bat eta eleiza ondoan amaitu barik dagoan zatia amaitutea aurreikusiten dabe. "Saneamentu plana egin zan bere egunean, baina hori diru asko dago ordainduteko eta hori berrikusi egin behar da. Horretarako hartu-emonetan gagoz Ur Partzuergoagaz" dino alkateak.

Igertualden aparkalekua egingo dabe eta horretarako 146.000 euro dagoz aurrekontuetan.

Negurako espazio batzuk ezalzteko asmoa be badauka Udalak. Herriko plazan dagoan umeen jolasgunea eta frontoia, hain zu-



zen be. Eskolan be aterpea ipini gura dabe. Eskolako patioa ezalzteko 195.000 euroko diru partidea dago aurrekontuetan.

"Adostu bako aurrekontuak"

Aurrekontuak osoko emendakina aurkeztu eutsan EH Bilduk. Hau atzera bota eban EAJ-PNVk eta emendakin partzialak aurkeztu eban gero oposizioak. Emendakin partzial horreetako batzuk onartu ziran, gimnasioak gauzak erosteko partidea zabaldu, saneamenturako diru partidea handitzea edo etorkinentzat dagoan pisua konponduteko diru partidea ipintea, esate baterako.

Dana dala, EH Bilduren desadostasuna aurrekontuak egiteko moduan oinarritzen dala dino Zearri Jauregi zinegotziak "Gugaz adostu bako aurrekontuak dira eta herriak be ez dau aukerarik izan parte hartzeako". Beste alde batetik be, EH Bilduk uste dau aurreikusitako hainbat inbersino ez dirala gauzatuko, diru laguntzen menpe dagozalako. Legeak marketan dauzan fetxak ez dirala bete eta "gaurko egunean be (apirilak 16) akats bat dago oraindino zuzendu barik" gehitu dau EH Bildukoak.

IGORRE

Independentziaren aldeko jardunaldiak

Erredakzioa

Apirilaren 15ean, zapatuan amaitu zan Gazte Akelarrea, Ernaik eta

Aitzinak antolatutako jardunaldiak, ekitaldi politiko eta manifestazio bategaz. Ekitaldian, independentziaren alde burrukan jarraituteko

deia egin eben Lur Albizu eta Aitor Servier Ernaiko eta Aintzinako bozeroaleak.

Apirilaren 13an, 23:00etan heldu ziran Igorrera gazteak "Sugarren dantza independentziara" lelopean, eta hurrengo egun bietan zehar, ekintza, berbaldi eta tailer ugari egin ebezan hainbat gunetan (Kultur Etxean, eskolan, Gaztetxean...). Ekintza honeetan, Arnaldo Otegi, Onintza Enbeita, Mikel Zuluaga eta Sabino Cuadra be egon ziran, izen batzuk aita-tzarren.

Hausnarketa politikoaz gainera, kirola egiteko aukerak eta kontzertuak animau eben giroa.



Apirilaren 13an Zornotzatik heldu ziran gazteak Igorrera.

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**

XX. KORRIKA

Bat eta Zuk bakarrik ez, jentetzeak hartu dau parte 20. Korrikan

Goizaldeko ordu txikietan pasau zan Korrika Arratiatik, baina horregaitik ez ziran arratiarrak etxean geratu eta parte hartu eben lekukoa eroanez, zein atzetik. Gainera, jentetxeak erakutsi eban sasoian dagoala, edo "euskereak emoten deutsela indarra" partaide batek esan eban moduan; ze batzuetan abiadura handian joan zan, Igorren barbarako, eta beste batzuetan, Barazarreko igoyeran legez, ibilbide gogorra eukalako. Herrietan jentetxea bildu zan, eta umeak be lo egin baino euskerearen alde galapan egitea gurago izan eben.



Iruneta eta Ainara.



Arratiako EAJ.




Arratiako Zekorrek Rugby Taldea.




Bediako EH Bildu.



Bediako Udala.



Construcciones EKIN.



Lemoako Sortu.




Itu Lemoa eta Opel Ibaigane.



Zementoseko LAB.



Etxerat.




Lemoako Gaztetxea.



Lemoako Eskolea.



Durundi Barri Dantza Taldea.



Ganzabal Mendi Taldea.



Lemoako Korala.



Lemoako Udala.



Lemoako Esku Pelota Elkartea.




Lemoako Futbol Taldea.



Zastaparrak Asti Taldea.



Igitie.




Araluce.



Arratia Institutuko Guraso Elkartea.



Arratia Institutua.



Batz.




Arratia Futbol Taldea.



Arantzarte Dantza Taldea.



EALE.



Igorreko Eskolea eta Guraso Elkartea.




Igorreko Esku Pelota Taldea.



Igorreko EH Bildu.



Igorreko Jubiladuak.



Igorreko Udala.



Luis Iruarizaga Abesbatza.



Arantzazuko Udala.



AEPGA.



Kiñu Gaztetxea.



Arantzazuko EH Bildu.



Arginatx Mendi Taldea.



Arratiako Bertso Eskola.



Arteako Sortu.



Arratiako Musika Eskola.



Aldatuz Plataformea.



Arteako Kultur Kirol Taldea.



Arteako Udala.



Arteako Eskolea.



Gorosti.

MIBA-CAVA IGORRE

ORAIN EZ DOGU IXTEN

ASTELEHENETIK BARIKURA 08:30-19:00
ZAPATUETAN 09:00-13:00

GARAGARRILA ETA ABUZZTUA

ASTELEHENETIK BARIKURA 08:30-15:00
ZAPATUETAN 09:00-13:00

Maiatzeko eskeintzak

 **Geraneosak**
1,80€ bako txak

 **Bitxia txakolina**
5,5€ botilea

BARRITASUNAK

- Zaldientzako pentsua Horse Power 20,56€ zakua
- Landako oiloentzako pentsu berezia 10,89€ 25 kiloko zakua


* Ordutegi barria maiatzean hasiko da martxan. * Eskeintzea maiatzerako da baliogarria.
* Deskontuak ez dira bateragarriak.

10€ ko deskontua
100 EUROTIK GORAKO EROSKETETAN

5€ ko deskontua
50 EUROTIK GORAKO EROSKETETAN

1€ ko deskontua
10 EUROTIK GORAKO EROSKETETAN


Garbe 26 · Igorre · Telefonoa: 94 631 55 73 · 94 616 97 75 · mibaigorre@miba.coop




Peña Beñat Etxebarria.




Areatzako Udala.



Areatzako GE eta AKKB.



Areatzako EH Bildu.



Peña Gorbeako Gurutzea.



Zeanuriko Sortu eta EH Bildu.



Arratia Motor Taldea.




Eguzkiola.



Zeanuriko Eskolea eta Guraso Elkarteak.




Zeanuriko Udala.



Dimako Eskolea.



Dimako Guraso Elkarteak.




Dimako Olazabal auzoa.



Dimako Artaun auzokoak Indusiri lekukoa emonda.




Dimako Indusi auzoa.



Andraizea.




Dimetaleroak.




Jentilzubi.




Txumuluxueta Pelota Elkartea.



Keixa Parapente Taldea.



Dimako EH Bildu.



Luis Prieto Lagun Taldea.




Gazteberri Dantza Taldea.



Abizarie.



Dimako Udala.




Ubideko herria.



Ubideko herria.




Zertu Kultur Elkartea.



Suzien Mendi Kluba.



Errota.



Arratiako AEK.

MENDIA

Julen Ozaeta eta Virginia Perez irabazle
III. Kolazinoko Mendi Lasterketan

Mendi lasterketako gizonen podiuma.

Erredakzioa

Aprilaren 8an ospatu zan Bedian Kolazinoko Mendi Egunaren hirugarren edizioa eta bertan Mendi Lasterketea, BTT Lasterketea, Mendi Martxea eta Juniorren Mendi Lasterketea jokatu ziran. Inoz baino jente gehiago bildu zan, 450 kirolari inguru. Mendi Lasterketea, Julen Ozaetak gizonen artean eta Virginia

Perezek andrazkoetan irabazi eben; BTT Lasterketea Alex Ordeñanek eta Zuriñe Frutosek. Atzenik, Junior Mendi Lasterketan Aitor Artaraz bediazarra izan zan garailea.

Martxistak izan ziran egunari hasikerea emon eutsienak, 20 kilometro ibilbide gogor bat egiteko. Gero, 09:00etan, BTT Lasterketea hasi zan. 35 km. eta 1.300 m.ko desnibeletako proba hau Alex Ordeñana usansoloz-

tarrak irabazi eban 1:52:30eko denporea eginda. Xabier Gonzalezek eta Jorge Saezek osatu eben podiuma. Andrazkoen kategorian, Zuriñe Frutosek irabazi eban, Ixone Fernandezek egin eban bigarren eta Arantza Artek hirugarren.

Julen Ozaeta irabazle bigarren

Mendi Lasterketako proba nagusia, igazko irabazleak, Julen Ozaeta durangarrak, jantzi eban barriro txapela 25 km.ko ibilbide aldapsua 2:11:22ko denporan eginda. Podiumean Markel Zamakona eta Ander Gerraetxebarria izan ziran beragaz. Andrazkoetan, Virginia Perez izan zan irabazlea 2:46:24ko denporeagaz, eta Rafaela Ciavola eta Saioa Arkonada, bigarren eta hirugarrena, hurrengo.

Junior Mendi Lasterketea Aitor Artaraz bediazarrak irabazi eban. Lasterketeak 50 metro bertikaleko zati kronometrau bat izan eban. Zati kronometrauan Andoni Barañano eta Virginia Perez izan ziran bizkorrenak.

MOTORRAK

Euskal Herriari itzulia motor gainean

Erredakzioa

Arratia Motor Taldeak antolatuta eta Arratia zein Arratiatik kanpoko motorzaleak, apirilaren 29 eta 30ean, Euskal Herriari itzulia egingo deusie motor gainean, orain dala lau urte "Mille Baietz"ek baje birtual moduan agertu ebana egia bihurtuz. Guztira ia 1.000 km. egingo ditue egun bitan.

Aprilaren 29an goizeko 08:00retan motorrak martxan ipini eta Araba eta Nafarroako herrietatik ibiliko dira: hamaiketako Urantzin; bazkaria Milagron eta afarria eta loa Izaban. "Afal osteko giroa duda barik itzela

izango da, gehienok aspaldidanik ezagunak gara eta" dino Edorta Zurinaga Arratia Motor Taldekoak.

Bigarren egunean hamaiketako Donibane Garazin egingo dabe, Mauletik bueltan. Bazkaria Beran izango da, Baionatik pasau eta gero. Ostein, kostaldetik etori eta Igorreko Kultur Etxean amaituko dabe itzulia 18:30 inguruan. Han, "lagunak agurtu eta garagardoren bat" hartuko dabe egunari amaiera emoteko.

Eguzki zein euri, aurrera

Itzulian parte hartzeako gehieneko kopurua 55 personatan ipini dabe

antolatzaileak, "bidean eroso ibilteko". Eguraldia ez da oztopo izango. Izan be, "eguzki, haize, zein euri, aurrera egingo dogu motorzale petoari toketan jakon moduan" dino Zurinagak.



PELOTEA

Izena emon daiteke Dimako
Plazako Esku Pelota Txapelketan

Erredakzioa

Aprilaren 30era arte, Dimako Plazako III. Esku Pelota Txapelketarako emon daiteke izena 688 653 473 edo 630 171 326 telefonoetara Whatsapp bialduta. Txapelketako sistema, data eta eta nondik-norakoak izen emote kopuruaren arabera izango dira.

Txapelketea bikoteka jokatu da eta finala herriko jaietan izango da.

Zaleentzako txapelketea da, ez profesionala. Izan be, parte hartzeako ezin da federatuta egon eta pelota gozoagaz jokatu da. Gainera, pelotari ohi bik bikotea osatu ahal izateko, gitxienez bat 10 urtean federatu barik egon behar da.

FUTBOLA

Futbol zarpiko prebenjamin
torneoa apirilaren 22an


Erredakzioa

Arratia Futbol Taldeak antolatuta, Futbol 7ko Prebenjamin Torneoa jokatu da Igorreko Urbietan zelaian. Lagunarteko futbol topaketa honetan, Arratia, Villa Ermua, San-

turtzi, Deusto, Galdakao, Baskonia, Plentzia, Lumo, Betolaza, Peña, Retuerto, Mungia, Zamudio, Ariz, Urduliz, Elorrieta, San Migel, Bermeo eta Igorreko taldeak neurtuko dira.

Torneoak, "beste herri batzuetako bizilagunak hartu-emonak sendotuteaz aparte, kirol, kultura eta ohitura desbardinak alkarbanatuz, jokalaria, gurasoak eta futbol zelaira hurreratzen dan edozeinek, futbolaz eta egunaz gozate" dauka helburu, antolatzaileen arabera, eta sarrereak euro bi baliore izango dau, jokalariai armozua emoteko.

Sailkapen partiduak 12 minutu iraungo dabez eta goizeko 09:00etan hasiko dira. Finalak hogeita minutu iraungo dauz: 17:15etik 17:35era.




PELOTEA

Enaitz Arandia zeberioztarra
Bizkaiko Cup txapeldun

Erredakzioa

Kadete mailako Bizkaiko Cup Txapelketea Enaitz Arandia zeberioztarrak eta Galder Solatxi Oroz-

kokoak irabazi eben apirilaren 8an lurretan jokaturako finalean. Arandia eta Solatxi, Orozkoko Pelota Eskolakoak, Bermeokoak nagusitu jakien 22-20, sano final estuan.



Enaitz Arandia ezkerrean, Irusta eta Galder Solatxigaz.

arratiako instalazioak s.l.
Berekueta - Iurgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgitze zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igoerako Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 536
48140 Igoerre Bizkaia

RUGBY TABERNA
Egin zaitez bazkide!
09:30etik zabalik
Asteburretan pintxo bereziak
arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGRAE, 17 - IGORRE

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urquiza Kibikoa
Oleasantza
Bilobari 4. behe
48340 Igoerre - Bizkaia
T. 94 632 58 39
Bilgintza Zentrua 101
R.P. 17/08

ERDU

El Carmelo Ikastetxera

Ikas ezazu eta hezi zaitez,
kalitatezko eta banakako
heziketari, ikasle goaren
gaitasunen eta izaeraren
garapenean arduratuta
dagoen ikastetxean.

Matrikulatu zaitez

BALOREETAN
ONARRITUTAKO
HEZIKETA

INGURUNE
BERDEA

HEZKUNTZA
KALITATEA

HIZKUNTZAK - TEKNOLOGIA - UNIBERTSITATERAKO BATXILERGOA



Ateak beti irekita

Detu 94 673 09 02 telefonora
edo idatzi colegio@elcarmelo.net
helbidera eta ondo datorkezunean
geratuko gara. Ikastetxea erakutsi
eta gure proiektua azalduko dizugu.

0-18
urte



El Carmelo
ikastetxea - Amorebieta



Gu ezagutzeko: **www.erdu.eus**



CARMELETAS DESCALZAS

Kalbario Plaza 4, 48340 Amorebieta (Bizkaia) · Tel: 94 673 09 02
colegio@elcarmelo.net / www.elcarmelo.net



ke

LEHIAKETE

Jaietarako Kartel Lehiaketarako lanak bialtzeko epea zabalik

Erredakzioa

Dimako Jaietarako Kartel Lehiaketarako lanak aurkeztu daitezke udal-txean maiatzaren 5era arte. Kartel-eko irudirako gaia "andrak jaietan" izango da eta "Dimeko Jaiak 2017.

Bagilaren 29tik garagarriaren 2ra" testua agertu behar da kartelean.

Saria herriko taberna baten afari "zoragarria" izango da. Irabazlearen izena maiatzaren 12an emongo dabe jakitera udal-tereko tabloian eta webgunean.

BERTSOLARITZEA

Aurten be Regueibertso jaia

Alvaro Rabelli

Igaz hasitako bideari jarraipena emonaz, aurten be, Regueibertso ekimena egingo da Arratian. "Hizkuntzak egiten gaitu. No camino da lingua" lelopean, galiziera eta euskera indartzeko helburua dauka proiektu honek. Horretarako, Galiza eta Arratiako hainbat gazteren arteko alkartrukea egingo da, bertsolariak eta regueifa buztartuz. Alkartruke horrek, regueifa eta bertsolariaren arteko antzekotasunak eta bereizitasunak igarteko, herri bietako ikasleek eta alkarren ezagutzeko bultzatzeko balioko dau, besteak beste.

Gazteak kultur ondarean murgiltzeko bidea izan daitezke bertsoa, zein regueifa, eta inprobisazioaren mundua. Ikasleak bizirik dagoan kultura bat erakutsi gura jakie, zentzua daben bizipen, ohitura, sentimentu, trebetasun, olgeta, memoria eta erreflejuak berriinterpretatzeko abagunea eskeini.

Esan lez, Regueibertso ekimenaren oinarria Galiza (Baio eta Vila de Cruzes) eta Arratiako (Arratiako BHI) hiru ikastetxetako ikasleek arteko trukea da, regueifa (Galizako koplak) eta bertsoa oinarri.

Apirilaren 27tik 30era Euskal Herrian alkatuko dira taldeak, eta maiatzaren 11tik 14ra Galizan. Alkartruke honetan bata bestearen proiektua ezagutzeko aukera eu-

kiko dabe ikasleak eta irakasleak. Horrez gain, hainbat kultur jardura egingo dira, herriak ezetuko dabez... eta beti, inprobisazioa eta hizkuntza (euskera eta galiziera) izango dira ardatzak.

Apirileko egun horreetan gurean izango diran ekitaldiak jagokienez, Galizako ikasleek etorrera apirilaren 27an espero da. Apirilaren 28an, goizean, ondo etorria emongo jakie Igorreko Institutuan, eta egun horretan bertan, arrastiko 17:30ean Angel Larrea irakasleagaz bisita gidatua egingo dabe Areatzan zehar. Ondoren, 18:30ean Oilar Lehia kaleetan eta 21:00etan jaia Gaztetxean. Biharamunean, apirilaren 29an, Dantzari Eguna izango da Zeanuriri. Goizean jantziak jardungo dabe, eta arrastian regueibertso saioa egingo da. Apirilaren 30ean Galizako ikasleak Ondarrura joko dabe, bertan beste bisitaldi gidatu bat zain daukie eta Arratiako Bertso Eskolakoak batera beste saio bat egingo dabe arrasti partean.



BERTSOLARITZEA

Arratiako taldeak ez dabe aurrera egingo Taldekakoan

Erredakzioa

Apirilaren 2an, Igorren eta Larrabetzun Arratiako taldeak Bizkaiko Taldekakoa Bertsolari Txapelketako sailkapen saioak jokatu ebezan. Ez ziran hurrengo faserako sailkatu; Igorren Lea-Artibaiko taldea nagu-

situ zan eta Larrabetzun etxekoa.


Bikotxgane taldeak etxean jokatu eban. Herriko Taberna izan zan lehenengo saioa eta Bikotxganekoak Lea-Artibaiko Ipizar taldearen kontra neurtu ziran. Gero, AZ Rubgy tabernan Ipizar eta Mungialdeko Taketa lez taldearen txandea izan zan eta amai-

MEMORIA HISTORIKOA

1937ko apirilaren 7an hildako zeanuriztarrak gogora ekarri ebezan meza nagusian

Jon Urutxurtu

Apirilaren 9ko meza nagusian gogoratu ebezan orain dala 80 urte Gerra Zibilaren ondorioz Zeanuriri hil ziran zazpi pertsonak: Florentzio eta Ramon Etxebarria, Jesus Urutxurtu gaztea, Esteban Astondoa, Benito Atuxa abadea eta Leon Zuluaga bere loba, eta Bizente Ozerinjuregi frantziskotar fraidea.



Esteban Astondoa, ezkerreko mutikoa, bonbek Zulaibar auzoan hil ebena.



Rosario Fernández de Larrinoa eta bere aurrean zuriz jantzita dagoana, Jesus semea, bonbak hil ebena.

Hildako bi bonbardaketen ondorioz

Gerra Zibila 1936ko garagarriaren hasi bazan be, Zeanuriri egunik gogorrenetako 1937ko apirilaren 7a, eguztena, izan zala esan daitezke. Gerran burrukatzen eban bi aldeetakoak eragindako hildakoak izan ziran.

Egun haretan nazionalen hegazkintzearen bonbardaketak —Kondor Legioko hegazkinak parte hartu

tuteko, etxekoak eta Taketa lez taldekoak Gau Loran kantau eban. Lehia amaitutakoan, parte hartzaile guztiak alkarregaz bazkaien joan ziran.

Hasieran publiko gitxi egon zala dino Illart Gumuzio Bikotxganekoak. "Eurria zan eta hasieran jente gitxi egon zan. Baina saioak aurrera egin ahala, publiko gehiago euki genduan" dino.

Larrabetzun etxekoak nagusi Larrabetzukoak arrastian jokatu zan. Gaztetxean izan zan lehenengo



Goitik behera: Benito Atutxa, Leon Zuluaga, Bizente Ozerinjuregi eta Ramon Etxebarria.

eben— gertatu ziran, eta ondorioz bi hildako egon ziran: plazan, Jesus Urutxurtu 18 urteko gaztea, bere etxeko ortuan hil eban bomba batek. Zulaibar auzoan jausi zan beste bomba batek 36 urteko Esteban Astondoaren bi-ziagaz amaitu eban. Gertaera horren

saioa; Arratiako Bagenki taldea eta Larrabetzu neurtu ziran haretan. Bigarrena, taberna baten, etxekoak Getxoko taldearen kontra, eta atzenik, Getxo eta Arratia aurrez aurre, Gaztetxean barriro. Sano bertso politikak entzun ziralako dino Ibon Iza Arratiako Bagenki taldeko epaileak. Eta giroa be berezia izan zala.

Giro informaletako txapelketa honek gustuko ditue arratiarrak. Eta formatoa ez ohikoa izan aren, ez da "arrotza" bertsolariarentzat, BBK-ko Txapelketan be antzera egin da eta.

testigantzea, Elena Rotaetxek idatzi eban egunerokoan irakuri daitezke. Rotaetxetarren etxe ondoan egoan zubipeko babeslekuan bizi izan ebana era honetan kontetan dau Elenak: "... al refugio de debajo del puente donde nos trasladamos todos hasta que anochece y ya no hay temor al bombardeo. Allí se dan escenas trágicas como la de una viuda que le avisan que una bomba acaba de sepultar a su hijo. Aquella mujer pierde la razón y es horrible oírle los gritos de angustia". Aitazen dauan andrea Rosario Fernández de Larrinoa zan, bost semearen ama alarguna, bonbardaketearen ondorioz bere seme zaharrena, Jesus, galdu ebana.

Asturriarrak hildako bost zeanuriztar

Baina bi heriotza horreek nazionalen bonbardaketearen ondorioa izan baziran, beste bostak Errepublikaren alde burrukatzen eban eta euskal tropai laguntzera etorri ziran asturiar milizianuak eragin ebezan. Asturiar milizianuak —asko ideologiaz komunistak ziran eta jarkera antikerikal sutsua eukien— Legutioko frentetik erretiradan etozan. Barazartik behera etozala, Beretikorta auzoan bizi ziran bi pastore osaba-lobak hil ebezan: Ramon eta Florentzio Etxebarria. Antza danez, ganadua kendu gura egin eutseanean, tirokatu egin ebezan.

Bestalde, Zeanuriko plazan, San Isidro eleizearen ondoan, Benito Atuxa abadea eta Andra Mariko parrokoa eta bere loba Leon Zuluaga —sei seme-alabaren aita eta zinegotzi jeltzalea Zeanuriko Udalean— hil ebezan, eta Arratia errekarra jaurti ebezan. Gertaera horren testigantzea be Elena Rotaetxek bere egunerokoan batzean dau: "Al día siguiente a la mañana viene Eleuterio (que había estado también en Miravalles) y nos da la horrible noticia de que aquella noche han matado los asturianos se cree, a Don Benito y León. Nos quedamos aterrados pues estuvimos con ellos hasta que nos fuimos a Bilbao". Barria emon eutsana Eleuterio Goikoetxea izan zan, Errepublika aldiko Zeanuriko lehenengo alkatea.

Zazpigarren biktima bat be egon zan: Bizente Ozerinjuregi, frantziskotar fraidea. Azken hau bere familiaren etxean egoan, Alzua auzoko Goikiri beserian, eta asturiar miliziano batzuk hartu eta gehiagotan bere barririk ez zan izan. Bizenteren anaia batek, Luisek, hasikera baten atzetik jarraitu ei eutsen baina, asturriarrak zera esan ei eutsien: "Si nos sigues vas a acabar como él". Herriaren komentetan zanez, azkeneko aldiz plazan ikusi eban Txominen dendearen aurrean. Bizenteren gorpua ez zan inoz agertu.

2017 apirilaren 9an, Erramu domekan, Zeanuriko parrokiaren ospatu zan meza nagusian, zazpi hildakoak gogoratu ebezan eta, aldi berean, bakearen aldeko deia egiteko aprobetxatu zan ospakizuna.

JANTZEA

Arratiako jantza taldeak Nazinoarteko Jantza Eguna ospatuko dabe Zeanurin

Aprilaren 29an, Arrikibar Dantza Elkarteak antolatuta, Nazinoarteko Jantza Egunaren inguruan, Arratiako Jantzari Eguna ospatuko dabe Zeanurin.



Erredakzioa

Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Usansolo eta Zeanuriko taldeak batuko dira. Igaz ospatu eben lehenengoz eta 300 jantzari eta 450 ikusle batu ziran.

Arratiako Jantzari Egunagaz, Arratiako kultura sustatu eta herrien artean batu, ezetu eta bateratutako proiektuak aurrera eramateko momentuak sortu gura dabez antolatzaileak. Baita, euskal jantzan dagozan beste errealidadeak hurreratu eta euskal

jantzarien topaleku izatea be.

Aurten, barrikuntza moduan, Makeako (Lapurdi) jantzari, kantari eta musikariak egongo dira, "Kabal-kadako" jantzak erakusten. Makea Zeanurigaz aspaldi senidetuta dagoan herria da. Bertsolaritzek be izango dau bere lekutxo, ze Galiza eta Arratia Institutuko bertsolaritzearen inguruko alkartrukea, Regueibertso, egun horreetan izango da.

Egitaraua

11:30ean, desfilea plazatik eskolara.

12:00etan, jantza emonaldia eskolan.

14:30ean, bazkaria.

16:00etan, bertso-saioa, galegoz eta euskeraz.

18:00etan, erromeria Bilboko Musika Eskolako Bandaren eskutik.

20:00etan, Kantu Topaketea Iparalde eta Hegoaldeko kantak batuz. Arratia Dantzan ekimenaren barruan.

21:00etan, herri afaria Zeanuri-Makea (Txartelak tabernetan dagoz salgai). Gaure Eskuetan alkartegaz batera antolatuta.

DOKUMENTALA

Gerra garaia gogora ekarten dauan dokumentala aurten amaitutea espero dau Mazala alkarateak

Erredakzioa

Zeanurin gerra sasoi bizi izan eben 30 andragaz egin dabe berba Mazala alkaratekoak eta testigantza honeek jasoten dabezan 15 alkarizketa grabau dabez andren memoria gordeteko helburua daukan dokumentala egiteko. Gaur egun Zeanurin bizi ez diran baina gerra sasoi bizi ziran beste hiruzpalau andragaz kontaktuan ipinteko asmoa daukie andra alkaratekoak, grabazio fasea amaitutzat emoteko. Ha ta guzti be, dokumentala 2017an amaitutea aurrekusten dabe eta *Akordetan naz, aitzu ez iteko* titulua izango dau. Alkarizketa horreetan orduko urteetako bizipenak jasoten dira: zelan bizi izan eben ha sasoi, heritik alde egin behar izan eben ala ez eta bizi

izandako gertaerak, barbarako.

Errepresino frankismoan

Martiaren 14an Mazalak dokumentalaren trailerraren aurkezpena egin eban. Aurkezpenean, Belen Sole eta Beatriz Diaz Elkasko Bizkaiko Ikerketa Historikoko Elkarteak, Bilbo Handian andrak frankismoan bizi izandako errepresinoaren gaineko berbaldia emon eben, marko historikoa eskeintzeko. Ikerlariak hainbat testimonio batu ditue, gerra sasoi zein gerra ostean andrak sufridutako errepresino motak ikertuteko eta ondorioztatu dabe errepresino esparru desbardinetan gauzatzen zala. Gainera, ez zan bakarrik galtzaileentzat, bando irabazlean egozan andrak be sufridu eben errepresino.



DUNBA

Arteako ikasleak *Human Bodies* erakusketan

Arteako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Hiruhilabete honetan giza gorputza landuten gabiz. Lan desbardin asko egin doguz, adibidez: animalien organoen diseinazioak (bihotza, guntzurrunak...), berbaldi bat prestatu, bihotz gaixotasuna daukan persona bateri alkarizketea egin...

Gure gorputza hobeto ezetuteko Iruñera urtekera prestatzea pentsau genduan. Baluarte jauregian *Human Bodies* erakusketea egoan ikusgai. Erakusketa honetan 12 gorputz txinatar eta 150 organo egozan. Gorputzak eta organoak ondo konserbetako plastinazio

teknika erabilten da.

Teknika hau lehenengoz Gunther Von Hagens mediku alemaniarrek garatu eban. Hildako gorpuai likidoak eta koipe guztiak kentzean jakoz azetona hotz eta epela erabilita. Ondoren silikonaz egindako plastiko oreaz ordezkaten da. Prozesu hau hutsean eta izozketapean egiten da. Silikona epoxikoa erabilita zurrunkan diran atalak malgu bihurtzen dira. Holan gorputzak saskibaloian edo futboleko jolasten, taichi egiten... dagoz. Kolorea be benetako gorputzen oso antzekoa da.

Gorpu oso baten plastinazioa 1.500 ordutako lana da.

Erakusketa Baluarte Jauregiko

Harresia gelan dago. Entzuteko gida bat emon euskuen bakotxari azalpenak entzuteko.

8 gela dagoz eta 78 erakusleihoguztira. Gela bakotxean gorputzeko sistema edo aparatu desbardinak ikusi daitezke: eskeletoa, muskulua, odol-zirkulazioa, digestinoia, ugalketa, nerbioak...

Erakusketa honetan plastinazioa dagozan gorpuak eta organoak Murtziako unibersidadeko plastinazio laborategian eginda dagoz. Museo-proiektu hau amaitzen danean, gorpuak eta organoak Murtziako unibersidadera bueltauko dira irakaskuntzan erabili ahal izateko.



Asko gustatu jakun eta uste dogu erakusketa hau oso interesgarria dala geure anatomia ikasteko. Informazio bide batzuetan irakurri dogu bertako gorpuak, kartzelan hildako txinatar herritarrenak izan ahal dirala. Hori egia bada, gustauko litxakigu gure baimen barik geure gorpuak hartzea hil ondoren eta gero plastinetea eta erakus leihotetan erakustea?

AGENDEA

APRILAK 18

ARTEA

11:00etatik 14:00etara arte, hilaren 23ra arte ludotekeak goizeko ordutegia izango dau.

AREATZA

Corbeiaiko Parke Naturalak antolatuta, hilaren 23ra arte, familientzako ekintza: ibaiertzetako basoen garrantzia eta uraren kalidadea aztertuteko aukerea.

Parke osasungarriak. Maiatza eta bagilean zehar ordu beteko saioak Ospitalosteko kanpoko gimnasioan. Saiok Foru Aldundiak ipinitako begirale batek lagunduta izango dira. Izena udaletxean emon behar da.

DIMA

Maiatzaren 5era arte, Dimako Jaietako Kartelerako Irudi Lehiaketeta. Udaletxean.

LEMOA

11:00etatik 14:00etara, hilaren 21era arte, Udal Liburutegiak goizeko ordutegia izango dau.

Apirilaren 23ra arte VI. Narrazio Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik. Udaletxean edo kultura@lemoa.net helbidean aurkeztu behar dira lanak.

APRILAK 19

IGORRE

19:00etan, Txomin Goyoagaren *Euskerean bidetik* erakusketearen aurkezpena, Juan Manuel Etxebarriagaz. Erakusketea maiatzaren 5era arte egongo da. Kultur Etxean.

APRILAK 20

ZEANURI

18:30ean, Jubiladuentzako informazio batzarra programazioaren gainekoa. Jubiladuenan.

APRILAK 21

ARRATIA

Jubiladuen mendi ibilaldia. Zumeltza-Urkiola. Bilbotik 08:45ean urtetan dan autobusean. Izena Igorreko Gurutze Gorrian emon behar da (94 673 62 62).

APRILAK 22

IGORRE

Jubiladuen mendi ibilaldia. 08:25ean Igorre

(autobusa)-Zumeltza-San Blas-Asterri-Karpo-Areatza (autobusa)-Igorre.

09:00etan, Futbol 7ko Prebenjamin Tomeoa Urbieta zelaian.

22:00etan, zinea *Es por tu bien* Kultur Etxean.

APRILAK 23

IGORRE

17:00etan, zinea *Los pitufos 3. La aldea escondida*; 19:30ean, *Es por tu bien*. Lasarte Aretoran.

LEMOA

09:00etan, Bagabiz badatoz-ek antolatuta, preso

eta iheslarien aldeko mendi martxea. Atxetan. Narrazio Lehiaketarako lanak entretetako azken eguna. www.lemoa.net edo udaletxean.

APRILAK 24

IGORRE

10:30etik 12:30era, Andra Migraduen Topagunea. Miriam Herbon irakasleagaz Kultur Etxean.

LEMOA

Apirilaren 23ko Liburuaren Nazinoarteko Eguna



Go!azen telebistatik Lasarte Aretora

Go!azen, arrakasta handia lortu duan ETB1eko telesail musikala da, Pausoka ekoiztetxeak eta EITBk ekoiztia. Fikzino honek udaleku zorrotz baten euskaldun gazteen talde baten ibilerak ditu ardatz. Igorren, apirilaren 28an egongo dira, saio bi egingo ditue, bata 17:00etan eta 19:00etan bigarrena. Sarrerak agortuta dagoz eta martian ia lau orduz egon zan jentea iladan sarrerak lortzeako.

"Heldu da uda eta Basakabik zabaldu ditu ateak. Gazteak ilusinoz beterik dagoz; abesteko, jantzan egiteko eta ondo pasetako prest. Baina Zuzenek ez deutse gauzak errez ipiniko bere arau eta debekuakaz. Halanda be Elene eta Haizea bikiak maitemindu egingo dira, arazoa da mutil bera gustatzen jakiera bai, Mikel, udalekuko langilea. Mileleri Haizea gustatzen jako hasikeran, baina gero Elenegaz geratuko da eta hortxe hasiko da nahaste-borrastea" dino sinopsiak.

Go!azen musikalean, gaztetxoaren arteko maitasuna, umorea eta abenturak biziten dira. Dana abesti eta jantzakaz zipristinduta. Etxeko txikiak eta handiak gozatzeko moduko ikuskizuna.

dala-eta, hileko kuota ordaindu dabenen artean, "Euskal Herria" liburuen urtebeteko harpidetza zozketatuko da kiroldegian.

APRILAK 26

AREATZA

18:00etan, Andren Jabekuntza Eskolako ikastaroa, Menopausia, eta orain zer? Desirak alkartearen eskutik, udaletxean.

APRILAK 27

AREATZA

17:00etan, Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatutako 6-12 urte bitarteko umeen gurasoentzako tailerra udaletxean. Izena emoteko idatzi prebentzioa.ariatia@bizkaia.org helbidera edo 94 631 17 17 telefonora deitu.

IGORRE

19:00etan, Jai Batzordeko batzarra Kultur Etxean.

LEMOA

18:00etan, Lemoako Hirigintza Planaren ibilbide parte hartzailea.

ZEANURI

12:00etan, Alex Txikonen berbaldia "Everest. Itzelezko ahalegina". Zulaibar Lanbide Ikastegian.

18:30ean, Zeanuriko jubiladua antolatuta, iktusari buruzko berbaldia Koldo Nidalen eskutik. Jubiladuen lokalean.

APRILAK 28

AREATZA

Regueibertso. 17:30ean, bisita gidatua, Areatza ezagutzeko (Angel Larrea). 18:30ean, Oilar Lehia, bertsoak eta Regueifak partekatuz kalejirela herriatik zehar. 21:00etan Regueifesta Gaztetxean, afaria eta erromeria Zirkinik bez taldeagaz. Errifaren zozketea.

IGORRE

12:00etan, Regueibertso, Arratiako Bertso Eskola eta Galiza eta Arratiako BHI Institutuak bertsoan Kultur Etxean. Ostean bazkaria.

19:30ean, euskal preso, deportatu eta igeslarien aldeko konzentrazioa.

LEMOA

19:30ean, euskal preso, deportatu eta igeslarien aldeko konzentrazioa. Bagabiz Badatoz ekimenak antolatuta.

ZEBERIO

20:00etan, euskal preso, deportatu eta igeslarien aldeko konzentrazioa Zubialde plazan.

APRILAK 29

AREATZA

19:00etan, Musika Bakarrean zirklo Javier Roldanen (klarinetea) kontzertua. AKKBK antolatuta. Udaletxeko Aretu Nagusian.

20:00etan, Vento Tempo taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

IGORRE

08:00etan, Arratia Motor Taldeak antolatuta Euskal Herriari bira motorrez, Kultur Etxeko plazatik urtenda.

22:00etan, zinea *Moonlight* Lasarte Aretoran.

LEMOA

Maiatzaren 1a arte, Ganzabal Mendi Taldeak Europako Pikoetara urtekerea.

ZEANURI

Arratiako Jantzi Eguna. 11:30ean, desfilea Zeanuriko plazatik eskolara; 12:00etan, jantza emonaldia eskolan; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, bertso-saioa (Regueibertso), galegoz eta euskeraz; 18:00etan, erromeria Bilboko Musika Eskolako Bandaren eskutik; 20:00etan, Kantu Topaketea Iparralde eta Hegoaldeko kantak batuz (Arratia Dantzan ekimenaren barruan). 21:00etan, herri afaria Zeanuri-Makea (Tiketak Zeanuriko tabernetan dagoz salgai hilaren 25era arte) Gaure Eskuetan alkarteak eta Arrikibar Dantza Elkarteak antolatuta.



APRILAK 30

DIMA

Dimako Plazako III. Esku Pelota Txapelketarako izena emoteko azken eguna, 688 653 473 edo 630 171 326 telefonoetara whatsapp bialduta.

IGORRE

17:00etan, zinea *Igelen erresuma*; 19:30ean, zinea *Moonlight* Lasarte Aretoran.

18:30ean, motor gaineko Euskal Herriari itzuliaren amaiera Kultur Etxeko plazan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

ALOKATZEN DA

100 m² dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

SALGAI

Gimnasioko materiala salgai. Bankadea, barra, mankuernak eta pesak. Arratian bizi bazara 50 euro garraioa barne. Telefonoa 657 707 725.

DANERIK

LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

ALOKATZEN DA

Jardunean dagoan estetika zentroa alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider

639 293 539.

LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabena jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

ETXEA ALOKAIRUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

GARAJEA BEHAR DOT

Karabanaa ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuera. Deitu 675 712 841 telefonora.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Moonlight* filmarako.

Rosa Ugartemendia (Artea)
Eba Urizar (Dima)



2 Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.

Maitane Iruarrizaga (Igorre)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Zakartu. 2.- Ordu. Amerizioa.
3.- Laurentzioaren sinboloa. Bike.
Bokala. 4.- Birritan, kolpe hotsa. Ahozko
berbetan, zer, zein. 5.- Eskolabako.
6.- Indioa. Birritan, min zorrotza
adierazoteko onomatopeia. 7.- Letra
bat. Gixi falta. Sodioa. 8.- Emea ez
dana. Alfer. 9.- Hauts egin.

GOITIK BEHERA

1.- Itxura, antz. Birritan, eperren
kantuaren onomatopeia. 2.- Ulea
apaintzeko. Musika nota. 3.- Suagaz
batera. Begi-santu. Sufrea. 4.- Aholku.
Letra bat. Andrazkoen izena.
5.- Letra bat. Existidu. Zidarra.
6.- Tantaloa. Esaera, atsotitz. 7.- Haur.
Ofensa, hoben.

N	I	D	E	S	D	E	6	O	M	X	O	K	O	N	I	N
I	D	V	N				8	I	O	I	X	X	O	S	A	N
V	N	V	I	V			Z	V	I	V	V	V	V	V	Z	O
R	V	N	N	I	I		9	R	E	I	I	I	I	I	I	I
I	S	V	K	I	Z		5	V	O	X	O	X	X	X	X	X
			Z	Z			4	I	V	V	V	V	V	V	V	V
			L	R	N		3	L	R	N	N	N	N	N	N	N
			E				2	E								
							1									
							7									

Topau marrazki bizidunetako zazpi pertsonajeren izenak.

Z	O	R	I	O	N	E	K	O	H
A	S	I	S	K	O	M	E	T	A
U	T	X	I	A	B	O	L	E	R
K	I	A	L	P	U	G	A	U	R
O	T	A	V	I	O	R	L	E	I
N	O	M	E	A	R	O	D	O	K
U	Z	I	S	T	X	A	R	P	E
H	I	R	T	E	M	U	I	R	T
A	E	I	R	K	R	O	K	O	A
N	Y	U	E	T	L	A	M	A	R
I	E	H	B	I	B	I	L	T	R
O	P	A	N	D	A	R	T	I	A
Z	O	Z	A	R	P	A	S	B	K
U	P	P	O	R	K	I	J	O	E
N	I	N	O	K	O	R	A	N	D



Agencia Lehendakaria, 11 • 48140 IGORRE
Teléfono: 94 631 92 94 • info@sem.es

GARRAIOA, HONDAKIDIAK ETA ZERRITZUAK
Gabea, 21 • Telefonoa: 94 673 62 14 • 48001 BIZKAIA

ARKEITEGIA
GAY & LORÁ
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza • Telefonoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TEL. 94 631 72 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA GUTXIRAKAZ
ZEHIN ERDARAZ
Lehendakari Agirre 21
Telefonoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@recreativosgubi.es

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXERGITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRAZIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
TEL. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 • Tel. 94 631 73 65 • VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-49-54

Orrele
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) • Telefonoa: 94 673 64 14

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
Karneta eskaintza zela onduz
Gorria, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
info@arratiaautoeskola.com

TXOMIN GOYOAGA

Euskalzaletasunaren historia bat

Txomin Goyoaga zeberioztarraren *Euskerean bidetik* izeneko erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxean apirilaren 19tik maiatzaren 5era arte. Bertan, orioz pintutako bertsolari, kantari euskaltzale eta Arratiako musikariren 71 erretratu ikusi daitezke.

1831n jaiotako Indalecio Bizkarrondo "Bilintx" da denporan lehenengoa eta Jone Uria (1990) bilduma honetan agertzen dan gazteena. Ez dagoz euskerearen bidean nor izan diran guztiak (ezinezkoa da hori), baina dagozan guztiak badira nor euskerearen munduan.

Erredakzioa

Erakusketan gehienak bertsolarien erretratuak dira (41). Zergaitik?

Zeberion jaiotako 1939an eta Zeberio Ermitabarri eskolan hasi nintzan, 6 urte neukazanean 10 urte arteraino. Eta 10 urteagaz Ar-teako eskolara joan ginan anaia eta biok. Han, behin, ez dakit nok organizata, bertsolari gipuzkoar bi etorri ziran: Uztapide eta Basarri. Bertso zoragarriak izan ziran eta gu eskolau-meok, danok oso pozik egon ginan.

Gero handik lasterren be, Zeberio-ganeko ermitan hasi ziran bertsolari bi. Bata Zeberiokoa zan, "Farola" esaten eutsiena, eta bestea bilbotarra baina Zeberion taberna eukana, Sanchez. Hasi ziran bertsotan eta ni aho zabalik egoten nintzan eurai entzuten.

Holan barruko harra biztu egin jatan.

Hemeretzi urteagaz injenierutza ikasketak hasi nebazan. Txikitatik gustetan jatan dibujoa eta polito egiten neban. Ikasketak amaituta, beharren hasi nintzanean 25 urte-gaz fabrika baten, astegoinetan trastoak hartuta pintetan joaten nintzan Zeberioko Undurragara eta beste auzuneetara. Ni Ugartekoa naz. Hor inguruko paisaje guztiak pintetan nebazan. Arratiakoak be bai, Zeanuritik hasi eta Igorreraraino leku askotan, pintetako leku oso politik dagoz eta. Paisajeak pintetan hasi ziran beraz.

Bai. Abstraktua be egin neban. Ezkondu eta gero, Europako museoak ikusten joaten nintzan Aste Santuetan. Aste Santu baten, Pariseko museo guztiak, beste baten Londresekoak eta holan. Pentsetan neban andreak ezin izango eustala inoz lagundu hiru ume geunkazalako. Gero umeak hasi ziran be andreak joanda nago barriro Pa-


risera, Londresera, Amsterdamera... museoak ikusten. Bolada bat be euki neban inpresionisten liburuak irakurten nebazana. Liburu asko. Bilboko museoetara be sarri joaten nintzan.

Pinturea asko gustetan jatan. Hogeitaz urte neukazanean, ikasi bitartean, Arratia futbol ekipoan egon nintzan. Danok jokatuten genduan futboleko orduan. Afizino itzela egoan Arratian. Eta Fasio eta Leon ibiltzen ziran futbol sasoi guztian jotzen, eta niri buruan sartu jatan egunen baten pintatu egin behar nebazala.

Dana dala, Xalbador izan zan pintatu zenduan lehenengoa, ezta?

Bai. Ni paisajeak pintetan ibiltzen nintzan. 1976an Xalbador hil egin zan, bere omenaldian bihotzeko atake batek emonda. Urepelen zan omenaldia eta jente asko joan zan hara. Omenaldia eta gero bazkaria. Euskal Herriko bertsolari guztiak edo gehienak han ziran, bazkaltzen. Eta Xalbador ez zan ondo sentidu eta ixil-ixilean mahaitik altxau eta andrearengana joan zan, etxera. Ordube beranduago hilda egoan etxean. Jentea festejetan, kantuan eta bertsotan, inok ez eban jakin. Hurrengo egunean egunkarietan irakurri genduan zer pasau jakon. Hain gizon majoa izan zan bera, noblea, artzaina eta labradorea eta oso argia. Jenteak asko gura eutsan. Orduan nik gordeta neukazan Euskal Herriko aldizkariak eta topau neban Xalbadorren pare bat argazki.

"Hemeretzi urteagaz injenierutza ikasketak hasi nebazan. Txikitatik gustetan jatan dibujoa eta polito egiten neban"



Hareek modelo hartuta koadro handi bat egin neban. Eta hortxe hasi nintzan bertsolariak pintetan.

Pintatu eta pintatu. 30 edo 40 bat bertsolari segiduan pintatu nebazan. Gero hasi nintzan paisajeakaz barriro. Kamara txikitxo bat daukat, eta hantxe daukat estudioa eta danak euki nebazan apilauta eta ordeanean. Eta seme batek esan eustan: "aita, honek koadroak zeuretzako pintetan dozuz, ezta?". Eta nik: "bai". Eta semeak: "hori ondo dago baina zergaitik ez dozu ahalegin bat egiten jenteak ikusi dagiazan?". Euskerearen alde izango zala, eta Zomoztan egin genduan igazko bagilean. Jenteari gustau egin jakon. Gero, Amurion be euki dot eta orain, 19an Igorren eskegiko dodaz koadrook. Arrastian izango da inaugurazioa. Apirilaren 19tik maiatzaren 5era arte izango da; "Euskerean bidetik. Euskal Herriko olerkariak, abeslariak eta bertsolariak gogoratuz" izenpean. Igorretik Galdakaora joango da eta Galdakaon bagilaren 6tik 23ra egongo da gitxi gorabehera.

Esan olerkari, abeslari eta bertsolari horreetako izen batzuk.

Hemen 41 bertsolari dagoz, 3 olerkari, 10 euskaltzale, 11 abeslari eta neure denporako gogorapenakaz lotutako beste 6 erretratu: Maurizia Aldeiturriaga, Leon Bilbao, Joaquin Goti, Bonifazio Arandia "Fasio", Silvestre Elezkano "Txilibrin" eta Luziano Artetxerenak. Luziano Artetxek 94 urte daukaz eta orain-

dino animetan da Gorbeira joaten. Horrek ez dau esan gura horreek dirala arratiar edo zeberioztar baka-rrak. Arratiar eta zeberioztar gehiago be badagoz: Maite Idirin Zeberiokoa, berbarako.

Euskaltzalei jagokonean, Jose Migel Barandiaran, Luis Villasante, Resurrección Maria de Azkue, Ander Manterola Zeanurikoa, Koldo Mitxelena, Andres Urrutia, Torrealdoi... Gehiago daukadaz etxean baina danak ezin dira ekarri.

Gero abeslarien artean, betikoak dagoz: Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Erramun Martikorena, Xabier Lete, Lurdes Iriondo...

Neska gitxi dagoz.

Badagoz batzuk. Maialen Lujanbio bertsolari oso ona, eta Uxue Alberdi be bai; Lurdes Iriondo eta Maite Idirin kantariak; Maurizia Aldeiturriaga... eta beste batzuk.

Euskerearen historiaren zati bat erakusten dozu zeure koadroetan.

Bai. Txikitik, bildurra egoan euskerea dala-eta. Politika kontuetan be bai. Gurasoak ez eben gura ezta berba egitea be. Inguruetan bildurra somatzen zan. Jente asko lotsatu egiten zan euskera egiteaz. Hogetabi urte neukazanean Bilbon antzerkia euskeraz egiten eban talde bat egon zan. Herri askotara joaten ginan, baina leku batzuetan, baimena eukinda be galarazo egiten euskuen.

Nire semeak ez dabe holangorik bizi izan, ze ikastolan ibili ziran eta ikastolan dana normalizau egin zan. Beste belaunaldi bat izan da, eurak trankilago hasi dira eta guk, bildurra euki genduanok orain gabiz ateraten gauza guztiak.

Jarraituko dozu bertsolari eta euskaltzaleak pintetan ala erakusketegaz amaitutzat emoten dozu?

Bai, jarraituko dot, baina paisajeak be pintetan dodaz eta familiakoak be bai. Egunean zortzi ordu egoten naz estudioan. Zapatu eta domektan be bai.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA